

Zigor-arloa eta espetxe-zaintza

HIZTEGIA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren
Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

| | |
|-----------------------|---|
| Argitaraldia: | I.a, 2016ko ekaina |
| Ale-kopurua: | I.500 ale |
| © argitaraldi honena: | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Internet: | http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm |
| Azala: | Concetta Probanza |
| Inprimaketa: | Leitzaran Grafikak S.L. |
| ISBN: | ISBN: 978-84-457-3376-7 |
| Lege gordailua: | SS 801-2016 |

HITZAURREA

Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak onartutako hiztegia duzu hau. Hortaz, Batzordeak gomendatu egiten du hiztegi honetako terminologia erabiltzea.

Izan ere, Terminologia Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea ponderazio-markak finkatuz, eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea. Terminologia Batzordeak urteko jarduketa-planetan jasotzen ditu horiek guztiak.

Hiztegi hau, Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) dago integratuta.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planeari jarraituz. Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa

etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPeekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko.

Garaiazen arabera, gizartea aldatzen den neurrian, hizkuntzak ere aldatzen dira, bizirik badaude, behar berriei erantzuteko. Ondorioz, hizkuntza baten modernizatzearen eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa eta terminologikoa etengabe elikatu behar dira, hizkuntza bera normalizatzeko, batetik, eta erabiltzaileen premiei erantzuteko, bestetik.

Honakoa, hiztegiak jorratzen duen eremuko erabiltzaileen oinarritzko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, baita gure hizkuntzaren normalizazioaren eta eguneratzearen bidean urrats garrantzitsuak izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok hizkuntza gero eta aberatsagoa izan dezagun.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 17a

PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) eguneratzeko eta elikatzeke entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPEk finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak¹ finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia**.

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

Hiztegien erabilitako ponderazio-markak:

(4) Termino normalizatua / gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegien erabilitako laburtzapenak:

eu euskara

es español

Sin. sinonimoa

Ik. ikus

NORMALIZAZIOA

BATZORDE TEKNIKOA

Ana Perez Machío (EHU)

Jaime Elias Ortega (Deustuko Unibertsitatea)

Aitor Gorostiza Morillo (Justizia Saileko Euskara Batzordea)

Aloña Iribar (UZEI)

Koordinatzailea: **Izaskun Osinalde**

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

TERMINOLOGIA BATZORDEA

Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria

Eneko Oregi Goñi, IVApeko zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea

Jorge Giménez Bech, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria

Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

Maite Imaz Leunda, IVApeko ordezkaria

Andoni Sagarna Izagirre, Euskaltzaindiaren ordezkaria

Iker Etxebeste Zubizarreta, Unibertsitate Zerbitzueterako Euskal Ikastetxeko (UZEI) ordezkaria

Xabier Alberdi Larizgoitia, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

Ibon Olaziregi Salaberria, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

Mertxe Olaizola Maiz, aditua

Joseba Erkizia Itoitz, aditua

Asier Larrinaga Larrazabal, aditua

Miel Loinaz Beristain, aditua

Alberto Atxabal Rada, aditua

Alfontso Mujika Etxeberria, aditua

UZEI-REN LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

Aitzol Asla Uribe. Bizkaiko Elkargoa eta Deustuko Unibertsitatea

Ixusko Ordeñana Gezuraga. EHU

Nekane San Miguel. Bizkaiko Probintzia Auzitegia

EREMU-ZUHAITZA



1 Zigor-arloa

- 1.1 Orokorra
- 1.2 Delituak eta faltak
- 1.3 Zigorak eta segurtasun-neurriak

2 Espetxe-zaintza

- 2.1 Orokorra
- 2.2 Komunikazioak eta bisitak
- 2.3 Espetxe-erregimena eta barneratze bereziak
- 2.4 Espetxeratuen sailkapena
- 2.5 Irteteko baimenak
- 2.6 Askatasun-motak eta espetxe-onurak
- 2.7 Diziiplina-erregimena eta zehapenak

AURKIBIDEA



Bokabularioa sailka

| | |
|---|----|
| 1. ZIGOR-ARLOA | 14 |
| 1.1. Orokorra | 14 |
| 1.2. Delituak eta faltak | 19 |
| 1.3. Zigorak eta segurtasun-neurriak | 26 |
| 2. ESPETXE-ZAINTZA | 31 |
| 2.1. Orokorra | 31 |
| 2.2. Komunikazioak eta bisitak | 34 |
| 2.3. Espetxe-erregimena eta barneratze bereziak | 35 |
| 2.4. Espetxeratuen sailkapena | 37 |
| 2.5. Irteteko baimenak | 38 |
| 2.6. Askatasun-motak eta espetxe-onurak | 39 |
| 2.7. Diziplina-erregimena eta zehapenak | 40 |

| | |
|--|-----------|
| Euskarazko aurkibidea | 43 |
|--|-----------|

| | |
|---|-----------|
| Gaztelaniazko aurkibidea | 51 |
|---|-----------|

| | |
|--|-----------|
| Erreferentzia bibliografikoak | 59 |
|--|-----------|

BOKABULARIOA SAILKA

I. ZIGOR-ARLOA

I.1. Orokorra

1

10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa (4)

Sin. Zigor Kodea (4); ZK (4)

es Ley orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal; Código Penal; CP

2

amnistia (4)

Erantzukizun penala azkentzeko moduetako bat, zigorra eta zigorraren ondoreak osoro suntsiarazten dituena.

es amnistía

3

arau-hauste (4)

Legea edo araua ez betetzea, urratzea.

es infracción

aringarri

Ik. inguruabar aringarri

astungarri

Ik. inguruabar astungarri

4

auzi-iheslari (4)

Zigor-arloko prozesuan zitatuta edo epatuta egonda, agertu ez den erruztatua.

es rebelde

5

beharrizan-egoera (4)

Erantzukizun penaletik salbuesten duen justifikatze-kausetako bat.

Beharrizan-egoeran, norberaren edo beste inoren aurkako kaltea saihesteko beste pertsona baten ondasun juridiko bat lesionatzen da, edo eginbehar bat hausten da, eta honako betekizun hauek pilatzen dira: eragindako kaltea saihestu nahi dena baino handiagoa ez izatea, beharrizan-egoera subjektuak berariaz sortua ez izatea eta beharrizana duenak bere burua sakrifikatze betebeharririk ez izatea ogibidea edo kargua dela-eta.

es estado de necesidad

behin-behineko espetxealdian igarotako denbora kentze

Ik. behin-behineko espetxealdiaren denbora kentze

6

behin-behineko espetxealdiaren denbora kentze (4)

Sin. prebentziozko espetxeratzearen denbora kentze (4); behin-behineko espetxealdian igarotako denbora kentze (4)

es abono de prisión provisional; abono del tiempo de prisión provisional; abono de prisión preventiva

7

beldur gaindiezin (4)

Gainditu ezin daitekeen beldurrak bultzatuta jokatzegatik erantzukizun kriminaletik salbuesten duen justifikatze-kausa.

es miedo insuperable

8

berrerortze (4)

Errudunak berriro delitu egitean datzan inguruabar astungarria. Berrerortzea egongo da, errudunak, delitu egiten duenerako, betearazi beharreko kondena jaso badu Zigor Kodearen titulu berean bildutako delitu baten ondorioz, betiere delitu hori izaera berekoa bada.

es reincidencia

9

bidezko defentsa (4)

Sin. defentsa legitimo (4)

Erantzukizun penaletik salbuesten duen justifikatze-kausetako bat. Defentsa legitimoan, norberaren nahiz beste baten eskubideak defendatzeko jarduten da, baldin eta honako betekizun hauek pilatzen badira:

- Bidezkoa ez den eraso. Ondasunak defendatzeko kasuan, bidezko ez den erasotzat hartzen da haien aurkako eraso, baldin eta eraso hori delitua bada eta ondasunok narriatzeko edo galtzeko arrisku larrian jartzen baditu. Bizilekua edo bizilekuko gelak defendatzeko kasuan, bidezko ez den erasotzat hartzen da bizilekuan edo bizilekuko geletan bidegabe sartzea.
- Bidezkoa ez den eraso eragotzi edo hari aurre egiteko erabili den bidearen zentzuzko beharrazina.
- Defendatzaileak behar besteko probokaziorik ez egitea.

es legítima defensa

10

biktima (4)

es víctima

defentsa legitimo

Ik. bidezko defentsa

11

delitu-pilaketa (4)

Delitugile batek hainbat delitu egin dituean eta, ondorioz, hainbat arau penal aplikatu behar zaizkionean sortzen den egoera. Delitu-pilaketa erreal, ideala edo mediala izan daiteke.

es concurso de delitos

12

delituen pilaketa erreal (4)

Hainbat egite edo ez-egite autonomoren ondorioz delitu bat baino gehiago eratzten denean sortzen den delitu-pilaketa; guztiak prozedura penal bakarrean bidera daitezke. Erantzuleari egin dituen arau-hauste guztien zigorrak ezartzen zaizkio, batera bete ditzan, baldin eta zigor horiek, zer izaera eta ondorio dituzten kontuan izanda, batera betetzekoak badira. Hala izan ezean, bata bestearen ondoren betetzen dira.

es concurso real de delitos

13

delituen pilaketa ideal (4)

Egite edo ez-egite baten ondorioz delitu bat baino gehiago eratzten denean sortzen den delitu-pilaketa. Kasu horietan, arau-hauste astunenari ezarritako zigorra goiko erdian ezartzen da (hau da, zigorra 6-10 urte bitarteko izan badaiteke, 8-10 urte bitarteko zigorren bat ezartzen da). Zigor horrek ezin du gainditu arau-hausteak banaturik zigortuz gero ezarri beharreko zigorren baturak dakarren zigorra.

es concurso ideal de delitos

14

delituen pilaketa medial (4)

Hainbat egite edo ez-egite autonomoren ondorioz delitu bat baino gehiago erazten denean eta besteren batek delitu egiteko beharrezko bidea denean sortzen den delitu-pilaketa. Kasu horietan, delitu-pilaketa idealaren kasuan aurreikusitako zigorra ezartzen da.

es concurso medial de delitos

15

egile (4)

Delitu egin duen pertsona.

es autor

16

egilekide (4)

Beste batekin edo batzuekin batera delitu egin duen pertsona.

es coautor

17

eginbeharra betetze (4)

es cumplimiento de deber

18

erantzukizun kriminal (4)

Sin. erantzukizun penal (4)

Delituaren egile, egilekide, ezinbesteko laguntzaile, indultzatzaile, sopikun edo estaltzaile izateak dakarren ondorioa.

es responsabilidad criminal;
responsabilidad penal

19

erantzukizun kriminala azkentze (4)

Sin. erantzukizun penala azkentze (4)

Delitugilearen, egilekidearen, ezinbesteko laguntzailearen, indultzatzailearen, sopikunaren edo estaltzailearen zigor-erantzukizuna amaitzea.

es extinción de la responsabilidad criminal; extinción de la responsabilidad penal

erantzukizun penal

Ik. erantzukizun kriminal

erantzukizun penala azkentze

Ik. erantzukizun kriminala azkentze

eskubide, kargu edo ogibidearen bidezko egikaritzea

Ik. eskubide, kargu edo ogibidearen egikaritze legitimo

20

eskubide, kargu edo ogibidearen egikaritzea legitimo (4)

Sin. eskubide, kargu edo ogibidearen bidezko egikaritzea (4)

es ejercicio legítimo de derecho, oficio o cargo

21

estaltzaile (4)

Delitu egin dela jakinda eta bertan egile edo sopikun gisa parte hartu gabe, delitu hori gauzatu eta gero modu hauetakoren batean esku hartzen duen pertsona: 1) irabazirik lortzeko asmorik gabe, egileei edo sopikunei laguntza emanaz, haiek delituaren probetxu, produktu edo prezioetik onura ateratzen; 2) delitua ezagutu dadin eragozteko, delitu horren gorputza, efektuak edo tresnak ezkutatu, aldatu edo deuseztatuz; 3) inguruabar jakin batzuetan, agintaritzaren zein haren agenteen ikerketa saihesteko edo haien bilaketatik edo harrapaketatik ihes egiteko, delitu baten ustezko erantzuleei laguntza emanaz.

es encubridor

22

etxeko indarkeria (4)

Sin. familia-indarkeria (4)

es violencia doméstica; violencia familiar

23

ezinbesteko laguntzaile (4)

es cooperador necesario

familia-indarkeria

Ik. etxeko indarkeria

24

genero-indarkeria (4)

es violencia de género

25

gizarteratze (4)

es reinserción social

26

indultu (4)

Estatuak zigorra oso-osorik edo zati batean barkatzea.

es indulto

27

induzitzaile (4)

Beste pertsona bat edo beste batzuk delitu egitera induzitzen dituen pertsona.

es inductor

28

inguruabar aringarri (4)

Sin. aringarri (4)

Delitugilearen erantzukizun penala arintzen duen inguruabarra. Adibidez, errudunak, haren aurkako prozedura judiziala abian dela jakin aurretik, egindako arau-haustea agintaritzari aitortzea.

es circunstancia atenuante;
atenuante

29

inguruabar astungarri (4)

Sin. astungarri (4)

Delitugilearen erantzukizun penala astuntzen duen inguruabarra. Adibidez, berrerorlea izatea.

es circunstancia agravante;
agravante

30

inguruabar salbuesle**ez-oso (4)**Sin. inguruabar salbuesle osatugabe (4)
Erantzukizun kriminaletik salbuesteko baldintza guztiak betetzen ez direnean gertatzen den inguruabar aringarria.es circunstancia eximente
incompleta**inguruabar salbuesle****osatugabe**

Ik. inguruabar salbuesle ez-oso

31

inguruabar salbuesle oso (4)

Delitugilea erantzukizun kriminaletik salbuesten duen inguruabarra.

es circunstancia eximente completa

32

kautela-neurri (4)

Sin. kautelazko neurri (4)

Auzitegiek, besteak beste epaiaren emaitza bermatzeko edo jokoan egon daitezkeen hainbat ondasun babesteko, behin-behinean hartzen duten neurria.

es medida cautelar

kautelazko neurri

Ik. kautela-neurri

33

konfiantza-abusu (4)

Sin. konfiantzaz abusatze (4)

Inoren konfiantzaz gehiegi edo era desegokian baliatzean datzan inguruabar astungarria.

es abuso de confianza

konfiantzaz abusatze

Ik. konfiantza-abusu

34

lekukotza faltsu (4)

Egia esateko zina egin eta jakinaren gainean egian kontrakoa deklaratzan denean egiten den delitua; lekuko, aditu eta interpreteek egiten dute.

es falso testimonio

35

maltzurkeria (4)

Egitatea era maltzurtean gauzatzean datzan inguruabar astungarria.

Maltzurkeria dago errudunak pertsonen aurkako edozein delitu zuzenean edo bereziki segurtatzeko bideak, moduak edo erak erabiltzen baditu, ofendituaren defentsatik arriskurik ez hartzeko.

es alevosía

36

ofendituaren barkamen (4)

es perdón del ofendido

37

ohiko errudun (4)

es reo habitual

**prebentziozko
espetxeratzearen
denbora kentze**

Ik. behin-behineko espetxealdiaren denbora kentze

38

sari (4)

Egitatea donari baten truke gauzatzean datzan inguruabar astungarria.

es recompensa

39

sexurako adostasun-adin (4)

Pertsona heldu batekin sexu-harremanak izateko gutxieneko adina, legeak ezartzen duena. Pertsona adingabea adin horretara iritsi ez bada, harremana izateko adostasunak ez du legezko baliorik, eta, ondorioz, legea urratzen du pertsona helduak.

es edad de consentimiento sexual

40

sopikun (4)

Delituaren egile, ezinbesteko laguntzaile edo indutzitzaile izan gabe, aurretiazko edo une bereko egintzen bidez delitugintzan parte hartzen duen pertsona.

es cómplice

Zigor Kodea

Ik. 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa

zigorra preskribatze

Ik. zigorraren preskripzio

41

zigorraren preskripzio (4)

Sin. zigorra preskribatze (4)

es prescripción de la pena

ZK

Ik. 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa

I.2. Delituak eta faltak

abortu

Ik. abortu delitu

42

abortu delitu (4)

Sin. abortu (4)

Emakume bati legean baimentzen diren kasuetatik kanpo abortua gauzatzea.

es delito de aborto; aborto

agintaritzaren aurkako

atentatu

Ik. agintaritzaren aurkako atentatuaren delitu

43

agintaritzaren aurkako

atentatuaren delitu (4)

Sin. agintaritzaren aurkako atentatu (4)

es delito de atentado contra la autoridad; atentado contra la autoridad

akusazio faltsu

Ik. akusazio faltsuaren delitu

44

akusazio faltsuaren delitu (4)

Sin. akusazio faltsu (4)

Justizia Administrazioaren aurkako delitua: arau-haustea ikertzeko betebeharraren duen funtzionario judicial edo administratibo baten aurrean, pertsona bati arau-hauste kriminal bat faltsuki egotea.

es delito de acusación falsa; acusación falsa

albaramendu

Ik. albaramendu delitu

45

albaramendu delitu (4)

Sin. albaramendu (4)

Ordina publikoaren aurkako delitua: agerian eta modu nahasian altxatzea, indarrez edo legezko bideetatik kanpo, legean aplikazioa eragozteko, edozein agintariri, korporazio ofizial edo funtzionario publikori bere funtzioan bidezko eran jardutea edo bere erabakiak betetzea eragozteko edo Administrazioak edo epaileek emandako ebazpenak betetzea eragozteko.

es delito de sedición; sedición

46

atzerritarren eskubideen

aurkako delitu (4)

es delito contra los derechos de los ciudadanos extranjeros

47

bide-segurtasunaren

aurkako delitu (4)

es delito contra la seguridad vial

bizilekua bortxatzea

Ik. bizilekua bortxatzearen delitu

48

bizilekua bortxatzearen

delitu (4)

Sin. bizilekua bortxatzea (4)

Norbanako bat inoren bizilekuan sartzea edo gelditzea, bertan bizi gabe eta bertako bizilagunaren borondatearen aurka.

es delito de allanamiento de morada; allanamiento de morada

49

delitu (4)

Legeak zigor astunarekin zigortzen duen dolozko edo zuhurtziagabekeriazko egite edo ez-egitea.

es delito

delitu egitea proposatze

Ik. delitu egiteko proposamen

50

delitu egiteko probokazio (4)

Delitu egitera bultzatzea, pertsona-multzo baten aurrean edo inprimaketa, irratidifusioa edo antzeko eraginkortasuna duen eta publizitatea errazten duen beste edozein bide erabilita zuzenean.

es provocación para delinquir;
provocación delictiva

51

delitu egiteko proposamen (4)

Sin. delitu egitea proposatze (4)

Delitu egitea erabaki duenak beste pertsona bat edo batzuk delitu egitera gonbidatzea.

es proposición para delinquir;
proposición delictiva

52

delitu-saiakuntza (4)

Sin. saiakuntza (4)

es tentativa de delito; tentativa

53

dolozko delitu (4)

Jakinaren gainean eta borondatez gauzatzen den delitua.

es delito doloso

ebasketa

Ik. ebasketa delitu

54

ebasketa delitu (4)

Sin. ebasketa (4)

Ondarearen aurkako delitua: irabaziak lortzeko asmoarekin, beste baten gauza higigarriez jabetzea, indarkeriarik eta larderiarik gabe, jabearen borondatearen aurka.

es delito de hurto; hurto

erailketa

Ik. erailketa delitu

55

erailketa delitu (4)

Sin. erailketa (4)

Giza bizitzaren aurkako delitua: beste pertsona bati bizia kentzea, betiere honako inguruabarretatik bat gertatzen denean: maltzurkeria; prezio, sari edo hitzemandarengatik egitea; eta, ankerkeriaren bidez, ofendituaren mina nahita eta bihotz gogorrez handitzea.

es delito de asesinato; asesinato

errezibitze

Ik. errezibitze delitu

56

errezibitze delitu (4)

Sin. errezibitze (4)

Norbaitek delituaren erantzulei delitu horren efektuez aprobetxa daitezen laguntza ematea, edo efektu horiek jaso, eskuratu edo ezkutatzea, irabaziak lortzeko asmoz, ondarearen edo gizarte-eta ekonomia-ordenaren aurka delitu egin dela jakinda eta delitu horretan egile edo sopikun gisa parte hartu gabe.

es delito de receptación; receptación

57

espetxealdi iraunkor**berrikusgarri (4)**

Delitu larri batzuen kasuan (adibidez, adingabeak erailteza edo terrorismo delituak) ezartzen den zigor berezia: epe zehatzik gabeko espetxealdia ezartzen zaio delitugileari, eta, 25 eta 35 urte bitarteko aldia pasatutakoan (delituaren arabera), berrikusi egiten da zigorra, delitugilea espetxetik aterako den erabakitzeko.

es prisión permanente revisable

estortsio

Ik. estortsio delitu

58

estortsio delitu (4)

Sin. estortsio (4)

Ondarearen aurkako delitua: norbaitek, irabaziak lortzeko asmoz eta indarkeria edo larderia erabiliz, beste pertsona bat egintza edo negozio juridiko bat egitera edo ez egitera behartzea, pertsona horren edo beste inoren ondarearen kalterako

es delito de extorsión; extorsión

59

familia-eskubideen eta eginbeharren aurkako delitu (4)

es delito contra los derechos y deberes familiares

funtzionario publikoen prebarikazio

Ik. funtzionario publikoen prebarikazio delitu

60

funtzionario publikoen prebarikazio delitu (4)

Sin. funtzionario publikoen prebarikazio (4)

Justizia Administrazioaren aurkako delitua: epaile edo magistratuak, jakinaren gainean egonik edo zuhurtziagabekeria astun zein ezjakite barkaezinarengatik, zuzena ez den epaia edo ebazpena ematea, edota epaitzeari uko egitea, legezko arrazoirik azaldu gabe edo legearen iluntasun, askiez edo isiltasunaren aitzakian, edota Justizia Administrazioan asmo gaiztoz gertatutako atzerapenaren erruduna izatea.

es delito de prevaricación de los funcionarios públicos; prevaricación de los funcionarios públicos

funtzionario-eroskeria

Ik. funtzionario-eroskeriaren delitu

61

funtzionario-eroskeriaren delitu (4)

Sin. funtzionario-eroskeria (4)

Administrazio publikoaren aurkako delitua: agintari edo funtzionario publikoak, bere onurarako edo beste inoren onurarako, bere kabuz edo beste pertsona baten bidez, emaria, mesedea edo edozein motatako ordainketa eskatzea edo jasotzea edota eskaintza edo hitzematea onartzea, bere karguan aritzean kargu horri dagozkion eginbeharren aurkako egitate bat gauzatzeko edo egin beharrekoa ez egiteko edo justifikaziorik gabe atzeratzeko.

es delito de cohecho; cohecho

gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta

Ik. gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta delitu

62

gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta delitu (4)

Sin. gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta (4)

Ondarearen aurkako delitua: irabaziak lortzeko asmoz beste baten gauza higigarriez jabetzea, eta gauzetan indarra erabiliz.

es delito de robo con fuerza en las cosas; robo con fuerza en las cosas

genozidio

Ik. genozidio delitu

63

genozidio delitu (4)

Sin. genozidio (4)

Nazio-, etnia-, arraza- edo erlijio-talde bat edo kideen desgaitasunagatik zehaztutako talde bat oso-osorik edo zati batean suntsitzeko asmoz egiten den delitua.

es delito de genocidio; genocidio

64

giza hilketa delitu (4)

Sin. homizidio (3)

Giza bizitzaren aurkako delitua: beste pertsona bati bizia kentzea.

es delito de homicidio; homicidio

gizakien salerosketa

Ik. gizakien salerosketa delitu

65

gizakien salerosketa delitu (4)

Sin. gizakien salerosketa (4)

Espainiako lurraldean, indarkeria, larderia edo engainua erabiliz, edota nagusitasun edo beharrian-egoeraz nahiz biktimaren ahuleziaz abusatuz, biktima atzematea, garraiatzea, lekualdatzea, hartzea, harrera egitea edo ostatu ematea, helburu hauek izanik: bortxazko lanak edo zerbitzuak, esklabotza edo esklabotzaren, mirabetzaren edo eskaletasunaren antzeko praktikak inposatzea; sexu-ustiaketa, pornografia barne, edo gorputz-organoak ateratzea.

es delito de trata de seres humanos; trata de seres humanos

66

Gizarte Segurantzaren aurkako delitu (4)

es delito contra la Seguridad Social

homizidio

Ik. giza hilketa delitu

irain

Ik. irain delitu

67

irain delitu (4)

Sin. irain (4)

Beste pertsona baten duintasuna lesionatzen duen ekintza edo adierazpena, pertsona horren izen onari kalte egiten diona edo haren estimazioaren aurka atentatzen duena. Ekintza edo adierazpen horiek delitu izaten dira haien izaera, ondore eta inguruabarren arabera jendeak larrizat hartzen dituzenean.

es delito de injuria; injuria

kalumnia

Ik. kalumnia delitu

68

kalumnia delitu (4)

Sin. kalumnia (4)

Ohorearen aurkako delitua: pertsona batek beste bati delitu bat egozte, faltsua dela jakinda edota egia ausartegi mesprextatuz.

es delito de calumnia; calumnia

laguntza ukatze

Ik. laguntza ukatzearen delitu

69

laguntza ukatzearen delitu (4)

Sin. laguntza ukatze (4)

Funtzionario publikoak egiten duen delitua: agintari eskudunak eskatu arren, beharrezkoa den laguntza ez ematea Justizia Administrazioari edo beste zerbitzu publiko bati.

es delito de denegación de auxilio; denegación de auxilio

laneko jazarpen

Ik. laneko jazarpenaren delitu

70

laneko jazarpenaren delitu (4)

Sin. laneko jazarpen (4); *mobbing* (3)

es delito de acoso laboral; acoso laboral; mobbing

71

langileen eskubideen aurkako delitu (4)

es delito contra los derechos de los trabajadores

lapurreta

Ik. lapurreta delitu

72

lapurreta delitu (4)

Sin. lapurreta (4)

Ondarearen aurkako delitua: irabaziak lortzeko asmoz beste baten gauza higigarriez jabetzea, gauzetan indarra erabiliz edota pertsonen aurka indarkeria edo larderia baliatuz.

es delito de robo; robo

legearen aurkako atxiloketa

Ik. legearen aurkako atxiloketa delitu

73

legearen aurkako atxiloketa delitu (4)

Sin. legearen aurkako atxiloketa (4)

Askatasunaren aurkako delitua: pertsona bat giltzaperatzea edo atxilotzea, askatasuna kenduta eta atxilotuaren borondatearen kontra.

es delito de detención ilegal; detención ilegal

lesio

Ik. lesio delitu

74

lesio delitu (4)

Sin. lesio (4)

Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabiliz, beste bati gorputz-osotasunean, osasun fisikoan edo mentalean kaltea eragitea, betiere kalte hori objektiboki sendatzeko tratamendu medikoa edo kirurgikoa behar bada hasierako mediku-laguntzaz gain. Ez da tratamendu medikotzat hartuko medikuak lesioaren inguruan egiten duen zaintza edo jarraipen hutsa.

es delito de lesión; lesión

manipulazio genetiko

Ik. manipulazio genetikoari buruzko delitu

75

manipulazio genetikoari buruzko delitu (4)

Sin. manipulazio genetiko (4)
 es delito relativo a la manipulación genética; manipulación genética

maula

Ik. maula delitu

76

maula delitu (4)

Sin. maula (4)
 Ondarearen aurkako delitua: irabaziak lortzeko asmoz beste bati okerra eragiteko engainu nahikoa erabiltzea, bere buruaren edo beste baten kaltean xedatze-egintzak gauzatzera induzituz.
 es delito de estafa; estafa

mobbing

Ik. laneko jazarpenaren delitu

ondasunak ostentze

Ik. ondasunak ostentzearen delitu

77

ondasunak ostentzearen delitu (4)

Sin. ondasunak ostentze (4)
 Hartzekodunei ondasunak ezkatzea, zor zaiena kobra ezin izan dezaten.
 es delito de alzamiento de bienes; alzamiento de bienes

78

osasan publikoaren aurkako delitu (4)

es delito contra la salud pública

79

pertsonen aurkako delitu (4)

es delito contra las personas

pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta

Ik. pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta delitu

80

pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta delitu (4)

Sin. pertsonen aurkako indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta (4)
 Ondarearen aurkako delitua: irabaziak lortzeko asmoz beste baten gauza higigarriez jabetzea, pertsonen aurka indarkeria edo larderia erabiliz.
 es delito de robo con violencia o intimidación; robo con violencia o intimidación

81

prostituzioari buruzko delitu (4)

es delito relativo a la prostitución

saiakuntza

Ik. delitu-saiakuntza

sexu-abusu

Ik. sexu-abusuaren delitu

82

sexu-abusuaren delitu (4)

Sin. sexu-abusu (4)
 Sexu-askatasunaren aurkako delitua, indarkeriarik gabe, larderiarik gabe eta adostasunik gabe egina.
 es delito de abuso sexual; abuso sexual

83

sexu-askatasunaren aurkako delitu (4)

es delito contra la libertad sexual

sexu-eraso

Ik. sexu-erasoaren delitu

84

sexu-erasoaren delitu (4)

Sin. sexu-eraso (4)

es delito de agresión sexual; agresión sexual**sexu-jazarpen**

Ik. sexu-jazarpenaren delitu

85

sexu-jazarpenaren delitu (4)

Sin. sexu-jazarpen (4)

Sexu-mesedeak eskatzea, laneko, irakaskuntzako edo zerbitzu-eskaintzako harreman jarraitu edo ohikoen eremuan, betiere jokabide horrekin biktimarengan larderiako, etsaigoko edo umiliazioko egoera objektiboa eta larria sortuz.

es delito de acoso sexual; acoso sexual**sorospen-eginbearra ez betetze**

Ik. sorospen-eginbearra ez betetzearen delitu

86

sorospen-eginbearra ez betetzearen delitu (4)

Sin. sorospen-eginbearra ez betetze (4)

Babesik gabe eta arrisku nabari eta larrian dagoen pertsona ez sorosteak, betiere pertsona hori sorosteak arriskurik ez badakar sorotsi behar duenarentzat edo beste norbaitentzat.

es delito de omisión del deber de socorro; omisión del deber de socorro**tortura**

Ik. tortura delitu

87

tortura delitu (4)

Sin. tortura (4)

Osotasun moralaren aurkako delitua: agintari edo funtzionario publikoak, bere karguaz abusatuz, pertsona bati baldintza eta prozedura desegokiak ezartzea, helburu hauekin: pertsona horren aitortza edo informazioa lortzea, pertsona horrek gauzatu duen edo gauzatu duela susmatzen den egitatearengatik zigortzea, edo edozein motatako diskriminazioa egitea. Gainera, beharrezkoa da baldintza eta prozedura horien izaeraren, iraupenaren edo bestelako inguruabarren ondorioz gorputzeko edo buruko sufrimenduak eragitea, ezagutu, bereizi edo erabakitzeko ahalmenak ezabatzea edo gutxitzea, edo beste edozein modutan pertsonaren osotasun moralaren aurka atentatu egitea

es delito de tortura; tortura**traizio**

Ik. traizio delitu

88

traizio delitu (4)

Sin. traizio (4)

Espainiar batek atzerriko herrialde bat Espainiaren kontra gerran sartzeko adierazpena egitera indutitzea edo, helburu hori lortzeko, atzerriko herrialdearekin ituna egitea.

es delito de traición; traición**tratu apalesgarri**

Ik. tratu apalesgarriaren delitu

89

tratu apalesgarriaren delitu (4)

Sin. tratu apalesgarri (4)

es delito de trato degradante; trato degradante

90

zuhurtziagabekeria delitu (4)

Kontuzko araua urratzen denean sortzen den delitua.

es delito imprudente

zuhurtziagabekeriako giza hilketa

Ik. zuhurtziagabekeriako giza hilketaren delitu

91

zuhurtziagabekeriako giza hilketaren delitu (4)

Sin. zuhurtziagabekeriako giza hilketa (4)

Giza bizitzaren aurkako delitua: beste pertsona bati bizia kentzea, beharrezko zuhurtziarik edo arretarik ezaren ondorioz.

es delito de homicidio imprudente; homicidio imprudente

I.3. Zigorrak eta segurtasun-neurriak

aldi baterako enplegu edo kargu publikorik gabe uzte

Ik. aldi baterako enplegu edo kargu publikorik gabe uzteko zigor

92

aldi baterako enplegu edo kargu publikorik gabe uzteko zigor (4)

Sin. aldi baterako enplegu edo kargu publikorik gabe uzte (4); enplegu edo kargu aldi publikoa etete (4)

es pena de suspensión de empleo o cargo público; suspensión de empleo o cargo público

armak eduki eta eramateko eskubidea kentze

Ik. armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetze

93

armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetze (4)

Sin. armak eduki eta eramateko eskubidea kentze (4)

es privación del derecho a la tenencia y porte de armas

askatasuna kentze

Ik. askatasunaz gabetzeko zigor

94

askatasunaz gabetzeko zigor (4)

Sin. zigor askatasun-gabetzaile (4); askatasuna kentze (4)

es pena privativa de libertad; privación de libertad

astuntasun txikiagoko zigor

Ik. zigor ez hain astun

95

biktimarekin komunikatzeko debeku (4)

es prohibición de comunicarse con la víctima

96

biktimarengana hurbiltzeko debeku (4)

es prohibición de aproximarse a la víctima

97

bizilekutik irteteko debeku (4)

es prohibición de ausentarse del lugar de residencia

desgaikuntza

Ik. desgaikuntza zigor

desgaikuntza absolutu

Ik. desgaikuntza absolutuko zigor

98**desgaikuntza absolutuko zigor (4)**

Sin. desgaikuntza absolutu (4);
erabateko desgaikuntzako zigor (4)
es pena de inhabilitación absoluta;
inhabilitación absoluta

desgaikuntza berezi

Ik. desgaikuntza bereziko zigor

99**desgaikuntza bereziko zigor (4)**

Sin. desgaikuntza berezi (4)
es pena de inhabilitación especial;
inhabilitación especial

100**desgaikuntza zigor (4)**

Sin. desgaikuntza (4)
es pena de inhabilitación;
inhabilitación

diru-laguntzak eta laguntza publikoak lortzeko desgaikuntza

Ik. diru-laguntzak eta laguntza publikoak lortzeko desgaikuntza zigor

101**diru-laguntzak eta laguntza publikoak lortzeko desgaikuntza zigor (4)**

Sin. diru-laguntzak eta laguntza publikoak lortzeko desgaikuntza (4)
es pena de inhabilitación para obtener subvenciones y ayuda públicas; inhabilitación para obtener subvenciones y ayudas públicas

enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezi

Ik. enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza bereziko zigor

102**enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza bereziko zigor (4)**

Sin. enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza berezi (4)
es pena de inhabilitación especial para empleo o cargo público; inhabilitación especial para empleo o cargo público

enplegu edo kargualdi publikoa etete

Ik. aldi baterako enplegu edo kargu publikorik gabe uzteko zigor

erabateko desgaikuntzako zigor

Ik. desgaikuntza absolutuko zigor

eskubideak kentze

Ik. eskubideez gabetzeko zigor

103**eskubideez gabetzeko zigor (4)**

Sin. eskubideak kentze (4)
es pena privativa de derechos;
privación de derechos

104**espetxe zigor (4)**

Sin. espetxealdi (4)
es pena de prisión; prisión

espetxealdi

Ik. espetxe zigor

105

etorkizunean jarduerak egitea debekatzeko zigor (4)

Sin. etorkizunean jarduerak egitea debekatzeko zigor (4)

es prohibición de realizar actividades en el futuro

etorkizunean jarduerak egitea debekatzeko zigor

Ik. etorkizunean jarduerak egitea debekatzeko

106

gizartearentzako lanak (4)

Sin. gizartearentzat lan egiteko zigor (4)

es pena de trabajos en beneficio de la comunidad; trabajos en beneficio de la comunidad

gizartearentzat lan egiteko zigor

Ik. gizartearentzako lanak

guraso-ahala kentze

Ik. guraso-ahalaz gabetze

107

guraso-ahalaz gabetze (4)

Sin. guraso-ahala kentze (4)

es privación de la patria potestad

hartzekodunen eskubideak babesteko esku-hartze judizial

Ik. hartzekodunen eskubideak babesteko esku-hartze judizialeko zigor

108

hartzekodunen eskubideak babesteko esku-hartze judizialeko zigor (4)

Sin. hartzekodunen eskubideak babesteko esku-hartze judizial (4)

es pena de intervención judicial para salvaguardar los derechos de los acreedores; intervención judicial para salvaguardar los derechos de los acreedores

ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak gidatzeko eskubidea kentze

Ik. ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak gidatzeko eskubideaz gabetze

109

ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak gidatzeko eskubideaz gabetze (4)

Sin. ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak gidatzeko eskubidea kentze (4)

es privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores

isun

Ik. isun zigor

110

isun zigor (4)

Sin. isun (4)

es pena de multa; multa

111

isuna ez ordaintzeagatik sortutako erantzukizun pertsonal subsidiario (4)

es responsabilidad personal subsidiaria por impago de multa

konfiskatze

Ik. konfiskazio

112

konfiskazio (4)

Sin. konfiskatze (4)

Dolozko delitua egiteagatik ezarritako zigorraren ondorio erantsia, delituaren efektuen galera, delitua prestatzeko nahiz egikaritzeko erabili diren ondasunen, bitartekoen edo tresnen galera eta delitutik datozen irabazien galera dakarrena.

es comiso; decomiso

lanbiderako desgaiuntza

Ik. lanbiderako desgaiuntza zigor

113

lanbiderako desgaikuntza zigor (4)

Sin. lanbiderako desgaikuntza (4)
 es pena de inhabilitación profesional; inhabilitación profesional

langileen eskubideak babesteko esku-hartze judizial

Ik. langileen eskubideak babesteko esku-hartze judizialeko zigor

114

langileen eskubideak babesteko esku-hartze judizialeko zigor (4)

Sin. langileen eskubideak babesteko esku-hartze judizial (4)

es pena de intervención judicial para salvaguardar los derechos de los trabajadores; intervención judicial para salvaguardar los derechos de los trabajadores

115

legez Espainian bizilekurik ez duten atzerritarrak nazio-lurraldetik kanporatze (4)

es expulsión del territorio nacional de extranjeros no residentes legalmente en España

leku jakin batzuetan bizilekua izateko eskubidea kentze

Ik. leku jakin batzuetan bizilekua izateko eskubideaz gabetze

116

leku jakin batzuetan bizilekua izateko eskubideaz gabetze (4)

Sin. leku jakin batzuetan bizilekua izateko eskubidea kentze (4)

es privación del derecho a residir en determinados lugares

117

leku jakin batzuetara joateko debeku (4)

es prohibición de acudir a determinados lugares

lokala edo establezimendua ixte

Ik. lokala edo establezimendua ixteko zigor

118

lokala edo establezimendua ixteko zigor (4)

Sin. lokala edo establezimendua ixte (4)
 es pena de clausura de local o establecimiento; clausura de local o establecimiento

pertsona juridikoa desagite

Ik. pertsona juridikoa desagiteko zigor

119

pertsona juridikoa desagiteko zigor (4)

Sin. pertsona juridikoa desagite (4)
 es pena de disolución de la persona jurídica; disolución de la persona jurídica

pertsona juridikoaren jarduerak etete

Ik. pertsona juridikoaren jarduerak eteteko zigor

120

pertsona juridikoaren jarduerak eteteko zigor (4)

Sin. pertsona juridikoaren jarduerak etete (4)

es pena de suspensión de las actividades de la persona jurídica; suspensión de las actividades de la persona jurídica

121

pertsona juridikoari aplikatzeko zigor (4)

es pena aplicable a persona jurídica

122

segurtasun-neurri (4)

es medida de seguridad

une oro lokalizatuta egoteko zigor

Ik. une oroko lokalizazioko zigor

123

une oroko lokalizazioko zigor (4)

Sin. une oro lokalizatuta egoteko zigor (4)

es pena de localización permanente; localización permanente

124

zaintzapeko askatasun (4)

Epailearen kontrolpean jartzen den kondenatuari ematen zaion askatasuna: Zigor Kodean zehaztutako neurri bat edo batzuk bete beharra izaten da.

es libertad vigilada

125

zigor (4)

Zigor Kodeak delitu egin duenari ezartzen dion zehapena.

es pena

126

zigor arin (4)

es pena leve

zigor askatasun-gabetzaile

Ik. askatasunaz gabetzeko zigor

127

zigor astun (4)

es pena grave

128

zigor erantsi (4)

es pena accesoria

129

zigor ez hain astun (4)

Sin. astuntasun txikiagoko zigor (4)

es pena menos grave

2. ESPETXE-ZAINTZA

2.1. Orokorra

130

I/1979 Lege Organiko Orokorra, irailaren 26koa, Espetxeei buruzkoa (4)

Sin. Espetxeen Lege Organiko Orokorra (4); ELOO (4)

es Ley Orgánica 1/1979, de 26 de septiembre, General Penitenciaria; Ley Orgánica General Penitenciaria; LOGP

131

190/1996 Errege Dekretua, otsailaren 9koa, Espetxeen Erregelamendua onestekoa (4)

Sin. Espetxeen Erregelamendua (4); EE (4)

es Real Decreto 190/1996, de 9 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento Penitenciario; Reglamento Penitenciario; RP

132

atxilotu (iz.) (4)

es detenido

barneratu

Ik. giltzaperatu

EE

Ik. 190/1996 Errege Dekretua, otsailaren 9koa, Espetxeen Erregelamendua onestekoa

ELOO

Ik. 1/1979 Lege Organiko Orokorra, irailaren 26koa, Espetxeei buruzkoa

133

espetxe (4)

Zigor eta kautela-neurri askatasun-gabetzaileak betetzeko espetxe-administrazioaren zentroa.

es prisión; establecimiento penitenciario; centro penitenciario; cárcel

134

espetxe-administrazio (4)

Sin. espetxeetako administrazio (4)

es administración penitenciaria

135

espetxe-zaintzako epaile (4)

Sin. zaintza-epaile (4)

es juez de vigilancia penitenciaria

136

espetxe-zaintzako epaitegi (4)

es juzgado de vigilancia penitenciaria

137

espetxean sartze (4)

Atxilotua, preso edo zigortua espetxeratzea. Atxilotzeko agindu judicialaren, espetxeratze-manamenduaren edo agintaritzza judicial eskudunak emandako epai irmoaren edo behin-behineko espetxeratze-autoaren bidez egiten da espetxeratze hori, atxilotze-agindua polizia judicialak edo fiskaltzak ematen duen kasuetan izan ezik.

es ingreso en establecimiento penitenciario

Espetxeen Erregelamendua

Ik. 190/1996 Errege Dekretua, otsailaren 9koa, Espetxeen Erregelamendua onestekoa

Espetxeen Lege Organiko Orokorra

Ik. 1/1979 Lege Organiko Orokorra, irailaren 26koa, Espetxei buruzkoa

espetzeetako administrazio

Ik. espetze-administrazio

138

Espetzeetako Zuzendaritza Nagusia (4)

es Dirección General de Instituciones Penitenciarias

139

espetxeko tratamendu-programa (4)

es programa de tratamiento penitenciario

140

espetxeratu (iz.) (4)

Zigor eta kautela-neurri askatasun-gabetzaileak betez, espetxean barneratua dagoen pertsona.

es incurso penitenciario

FIES

Ik. Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategia

141

funtzionario (4)

Espetxe barruko segurtasuna kontrolatzen duen pertsona.

es funcionario

142

giltzaperatu (iz.) (4)

Sin. barneratu (iz.) (4)

Zigor eta kautela-neurri askatasun-gabetzaileak betez, espetxean, ospitalean edo bestelako egoitza batean egotera behartuta dagoen pertsona.

es recluso; interno

143

giltzaperatuaren eta haren familiaren intimitaterako eskubide (4)

es derecho a la intimidad personal y familiar del recluso

144

giltzaperatuaren komunikazioen sekreturako eskubide (4)

es derecho al secreto de las comunicaciones del recluso

145

giltzaperatuaren osotasun fisikorako eta moralerako eskubide (4)

es derecho a la integridad física y moral del recluso

146

Jarraipen Bereziko Barneratuen Fitxategia (4)

Sin. FIES (4)

Espetxe-administrazioak kontrol-helburu desberdinekin erabiltzen duen tresna. Fitxategiak honako sailkapen hau du (kontuan hartuta, besteak beste, egindako delituak, haien eragin soziala, talde antolatu eta kriminaletako kidetza, eta arriskugarritasuna): FIES-1 (Zuzeneko kontrola), FIES-2 (Narkotrafikatzaileak), FIES-3 (Talde armatuak), FIES-4 (Segurtasun Indarrak eta Espetxe Erakundeko funtzionarioak) eta FIES-5 (Ezaugarri bereziak).

es Fichero de Internos de Especial Seguimiento; FIES

kondena likidatze

Ik. kondenaren likidazio

147

kondenaren likidazio (4)

Sin. kondena likidatze (4)

es liquidación de condena

148

lantalde tekniko (4)

Barneratu bakoitzari ezarritako tratamendu-programak edo espetxe-eredu indibidualak betearazteaz arduratzen den lantaldea.

es equipo técnico

149

paketea hartze (4)

es recepción de paquete

150

pekulio (4)

Presoak duen diru-kopurua, espetxean sartzean duen diruarekin eta ondoren legezko jatorria duen edozein kontzepturengatik jasotzen duenarekin osatua. Funts hori kudeatu ahal izango dute espetxe-administrazioak edo finantza-erakunde laguntzaileek, espetxe-administrazioarekin sinatutako hitzarmenaren bidez.

es peculio

preso

Ik. preso prebentibo

preso

Ik. zigortu

151

preso ohi (4)

es ex preso

152

preso prebentibo (4)

Sin. preso (4)

Espetxean sartzeko manamendu baten ondorioz, espetxean epai irmoaren zain barneratua dagoen pertsona. Epai irmoa izatean, pertsona askea edo zigortua izango da.

es preso preventivo

presoa espetxera ekartz

